

Oinezkoak

Arreta eta errespetua

Errepidea guztiona da

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 4a

Gure errepideen eta kaleen erabiltzaileen babesa eta segurtasuna bermatzea da Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzaren lehentasunik handienetako bat.

Gure bide-sarean hainbat erabiltzaile daude, hala nola ibilgailu motordunen gidariak, txirrindulariak eta oinezkoak. Horiek guztiek leku bera erabiltzen dute eta leku hori segurtasunari kalte egin diezaioketen ekintzen edo jarreraren menpe dago. Beste alde batetik, gizartean mugikortasun seguru eta egokiaren alde dagoen kontzientzia handiagoak berekin ekarri du bizikleta gero eta gehiago erabiltzea. Horren erakusgarri ere badugu gure herri eta hirietako bide-azpiegiturretan izandako aldaketa, garraiomota hori sustatzeko ahalegin biziak egiten ari baitira. Halaber, gero eta gehiago dira bide-sarea kirola egiteko erabiltzen duten pertsonak (korrikalariak, ibiltariak,...)

“Pertsona helburu”tik abiatuta, gure xedea beti izango da errepideetatik dabiltzanen segurtasuna bermatzea eta, asmo horrekin, lortu beharreko helburu nagusitzat jotzen dugu bide-segurtasuna eta mugikortasun segurua babestea, arreta eta elkarrekiko errespetua oinarri harturik.

Hori guztia dela eta, atsegin handiz jakinarazten dizut zure esku gida hau jarri dugula: "Arreta eta errespetua. Errepidea guztiona da". Gidaren helburua da ohartaraztea eta jakinaraztea zeintzuk diren gidari, txirrindulari edo oinezko gisa euskal errepideak eta kaleak erabiltzean zaindu behar ditugun arauak eta portaerak.

Dokumentazio hori interesgarria irudituko zaizulakoan, jaso ezazu agur bero bat.



ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRÓNIZ
Segurtasuneko sailburua

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO


SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Oinezkoa baldin bazara:



Errepidean, eskuinetik zirkulatuko bazenu, ibilgailuak atzetik hurbilduko lirateke eta, beraz, horrek ekarriko luke arriskuaz garaiz ohartzeko eta hori galarazte aldera beharrezko neurriak hartzeko zailtasuna.



Bazterbidetik edo galtzadatik zuhurtziaz ibili behar da; beharrik ez badago, zirkulazioa oztopatu gabe eta berorietara ahalik eta gehien hurbilduz.



Segizioa osatzen denean izan ezik, oinezkoek bata bestearen atzetik joan beharko dute, batez ere ikuspen gutxi dagoenean edo ibilgailuen zirkulazioaren dentsitatea handia denean.



OINEZKOENTZAKO PASABIDETIK KANPO galtzada zeharkatu behar baduzu, ziurtatu behar duzu arriskurik gabe eta zirkulazioa bidegabeki oztopatu gabe egin dezakezula.

Zirkulatzeko era

Gaueko zirkulazioa

Eguzkia sartzen denetik irten arte edo eguraldi txarrak ikuspena gutxitzen duenean, galtzadatik edo bazterbidetik dabiltzan oinezkoek homologatutako elementu argidun edo islatzaileen bat eraman beharko dute eta kolore argiko arropak jantziko dituzte 150 m-tara ikusteko moduan.



Galtzadatik edo bazterbidetik zirkulatzea


Errepidean oinezkoek ezkerretik joan behar dute, era horretan hurbiltzen diren ibilgailuak aurrez ikusi ahal izateko. Eskuinetik ibiliko dira bakarrik bidean edo trafikoan gertatutako edozein arrazoiengatik errazagoa edo seguruagoa bada.

Bazterbiderik baldin badago, hortik joango da eta egon ezik, galtzadatik ibiliko da, betiere bazterretik ahalik eta hurbilen. Pertsona batzuk izanez gero, bata bestearen atzetik, ilaran, joan beharko dute.

Oinezkoentzako alderditik ibili beharko duzu, salbu eta alderdi hori ez badago edo erabiltzeko modukoa ez bada. Kasu horretan bazterbidetik joan ahalko zara edo, horren ezean, galtzadatik.


Dena den, nahiz eta oinezkoentzako alderdia egon, behar den arreta jarritz gero, bazterbidetik ibili ahalko zara edo, bazterbiderik ez badago edo erabiltzeko modukoa ez bada, galtzadatik.

Gurpil-aulkian doan ezindua ere hori egin ahalko du oinezkoen abiaduran



Besteekin izan beharreko harremana

Galtzada zeharkatzean haren ardatzarekiko perpendikular ibili behar duzu eta ez duzu premiarik gabe atzeratu eta gelditu behar, ezta gainerakoen ibilia oztopatu ere.



Saiatu gurutzatzen seguruena eta ikuspenik handienekoak diren tokietatik; esate baterako, bihurgunerik eta aldaparik gabeko errepide-zatietatik eta ikustea eta ibilgailu-gidariak gu ikustea galarazten duten zuhaitzik, autorik edo bestelako oztoporik ez dagoen tokietatik.

